



Suziriarekin lehertu dira Tolosako Inauteriak

JENDETZA ▶ Inoiz baino jende gehiago elkartu zen Plaza Zaharrean txupinazoan

ESKOLAK ▶ Eskualdeko ikastetxeetako haurrek ere festaz gozatzeko aukera izan zuten


GAUR ▶ Gaur zezentxo festa izango da eta Arpegi taldearen jaialdia Leidor zineman ▶ 2-5



Kabi Alaiko udal korporazioa txarangarekin abesten. IRATXE ETXEBESTE



LEIRE MONTES



Inauterietako egitaraua
Inauterietako argazki bilduma...

Zure argazkiak bidaliz gero,
gure web orrian azalduko dira
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

www.tolosaldeko-hitza.info





TXUPINAZOA ▶



Jendetza bildu zen Plaza Zaharrean txupinazoari harrera egiteko; Nafarroako zubian eta Zerkausi inguruetan ere jende asko bildu zen, atzo, festei hasiera emateko. I. ETXEBESTE

Ohiko txupinazoak eta jendetzak eman die hasiera Inauteri zoroiei

Uste baino lehenago, artean 12:00ak ez zirela, hasi ziren, atzo, 2005eko Inauteriak; itxurazko udal korporaziokoek festak ondo pasatzeko gonbita egin zieten tolosarrei zein kanpotik etorritako guztiei



Itxurazkoa. Kabi Alai elkarteko udal korporaziokoak, txistorra jaten. L. MONTES



Inauteri doinuak. Jendea, Ostegun Gizen kantuaren esanetara, eskuak astintzen. L. MONTES



LEIRE MONTES
IRATXE ETXEBESTE

Inoiz baino lehenago etorri dira aurten Tolosako Inauteriak, eta itxurazko udal korporazioak ere ordua baino lehenago iragarri nahi izan zuen atzo jaien hasiera. Izan ere, eguerdirako minutu batzuk falta zirela oraindik jaurtiki zuten festei hasiera ematen zien suziri udaletxeko balkoitik.

«Tolosar maiteok, zaudetenok eta ez zaudetenok», hasi zuen pregoia Patxi Amiano aurtengo itxurazko alkateak: «Egun hauetan lanerako gogo gutxi dagoela ikusita eta jendeak ondo pasatu nahi duela pentsatuta, erabaki bakar hartu dugu gure batzarrean: Tolosa erroldatuta daudela frogatzen dutenak pasatu daitezke Udaltzaingotik merke txartela jasotzera. Txartel honekin tabernetako kontsumizioak erdi prezioan izango dituzte. Erabaki hau adostea oso zaila izan da, baina ona delakoan gaude. Udalari eta Tolosako tabernariei gure eskerrak eman behar dizkiegu azaldu duten jarreragatik. Inguruak molestatu gabe, Inauteriak ondo pasa ditzagula denok. Gora Ostegun Gizen! Gora Inauteriak! Gora Tolosa!».

Segituan iritsi zen zoramena: musikaz, kolorez, umore onez, jai giroz eta ondo pasatzeko gogoz bete zuten tolosarrek eta kanpotik etorritako Plaza Zaharra. Baita Nafarroako zubia eta Zerkausi inguruko txokoak ere. Izan ere, jendetzak eman zuten ongiatorria, atzo, 2005eko Inauteri goiztiarrei.

Kabi Alai elkarteak osatutako itxurazko korporazioak udaletxean mokadutxoia eginez hartu zituen indarrak kalejirari

ekiteko. Bitartean, elkartearen txarangaren doinuekin salto eta brinko jarraitzen zuten herritarrek, plazan, festa gosez. Lehenago, orde, gozokiak eta beste bota zituzten udaletxeko balkoitik, eta bertan zeuden gaztetxoek gora jaurtiki zituzten bueltan jasotako gozokietako asko. Balkoiaren goialdean argazkiak ateratzen ari ziren kazetariak, behintzat, nahiko lan izan zuten jaurtikitakoak sahiesten.

Inauteri itxuraz eta kolorez apaindutako Alde Zaharreko kaleak zeharkatu zituzten segituan udal korporazioak, txarangak eta herritarrek. Mila koloreko txilabak ikusgai ziren non-nahi, baina baita askotarikoz moztutako ere: butano saltzaille eta langile jantziak, ohi-tura bilakatu diren moztutako galtzak eta eskuz margotutako kamisetak...

Eguerditik aurrera bete-beteak zeuden tabernak; festaz, edanaz eta Ostegun Gizeneko ohiko txistorraz gozatzen bildu zirenak ez ziren gutxi izan. Inauteri piezak entzunez, berdin elkartu ziren tabernetako berora eta kaleko txarangen erritmora. Luze aurkezten dira Inauteriak aurten ere, baina tolosarrek gogotik ekin diete lehendabiziko egunetik, eta parrandarako prest ziren herritar gehienak eguna hasterako.

Txosnagunean ere hasi dira

Jai hasiera ofiziala baino ordu erdi beranduago zegoen iragarritako txosnagunean suziri jaurtiketa, baina azkenean ez egitea erabaki zuten antolatzaileek, eta txupinazoaren lekuan txistorra prestatu zuten bertara joandako guztientzat. Agiritegi atzealdean jarri dute aur-

Pregoilari izandakoaren esanak

Kabi Alai elkarteak udal korporazioko Alberto Arzuaga tolosarrik egiten zuen orain arte txupinazo uneko pregoiaren irakurketa udaletxeko balkoitik, itxurazko udal korporazioko alkate gisa. Aurten ez da bera izan alkatea, baina Arzuagak pregoia idatzita zenez, lerrootan azalduko dugu denek ezagutzeko:

«Tolosar maiteak, hemen zaudetenak eta falta direnak, aurten berriro ere gure promesak aurkeztera etorri gara. Dakizutenez, beti betetzen ditugun promesak. Nahiz eta iluminaturen batek *promesa tranpak* direla esan.

Zerkausia bertan behera botako dugu eta 50 solairuko berri bat jasoko dugu mota guztietako erosotasunez horniturik: igogailuak, eskailera mekanikoak... eta telesilla zerbitzua 24 ordutan, azken solairura igo ahal izateko. Euskal Herrian bakarrik izango den eraikin hau, ondorengo instalazio eta zerbitzuekin hornituko da: frontoia, bola-tokia, belodromoa, rokodromoa, futbol zelaia, sky pistak, igerilekuak, dantzalekuak, multizineak, haurtzaindegia, gune komertzialak eta zoo bat ere bai (Euskal Herrian bakarrik diren txoritzarrekin). Behe solairuan benetako kirol portua eraikiko dugu ondorengo zerbitzuekin: batelak, traineruak, kanoak, piraguak, uretako



Alberto Arzuaga, orain arteko pregoilaria, 2003ko Inauterietan. HITZA

motorrak, belaontziak eta, lekurik balego, transatlantiko bat. Azken solairuan aireportu bat jarzea aztertzen ari gara.

Santa Maria parrokiko kanpaiek azkenaldi honetan zarata ugari ateratzen ari den arazo honi irtenbidea aurkitu diogu. Kanpaiek Internetez joko dira. Etxean ordenagailurik ez dutenentz, berriz, Aitzol udal euskaltegiara joaterik izango dute. Euskaltegiak pozik uzten baitizkie ordenagailuak tolosar guztiei. Gaurtik aurrera Aranburu eta Bilintx liburudendetan kanpaien musika bildumarekin CD bat jarri da salgai: Gabon kantak, Inauteri piezak, San Juan martxa eta trikitixaren bat edo besterakin. Asperturik bazaude, estresa, logabezia, burukomina

edota haginetakoa izanez gero, zure etxe bertan lasaitu ahal izango zara, gure parrokia maitearen kanpainsinu 'atsegina' entzunez.

Tolosar arraunlari gazteen eskaerari kasu eginez, gure plan berezia prestatu dugu: Traineru Plana. Mundu osoan ezaguna den Tolosa-Dakar proban parte hartzea erabaki dugu, Urragaiz izeneko traineruarekin, 200 zaldiko potentzia duen motorra erantsiko zaiolarik. Eta zin egiten dugu, esanak esan, proba hau irabazi egingo dugula!

Eta hala bazan eta ez bazan, sar dadila kalabazan eta atera dadila Tolosako plazan.

- Gora Ostegun Gizen!
- Gora Inauteriak!
- Gora Tolosa!
- Gora Euskal Herria!

Txupinazoak ekarri ditu As-teartita bitartekoak. Ordura arte, jai giroa izango da nagusi herriko bazter guztietan. Hala ere, ez dugu ikasten edo lanean ari direnekin ahaztu nahi,

eta horiei guztiei ere gure animerik handienak, beraz. HITZA-k kazetariok, lanean bada ere, Inauteriaz gozatzeko ahalegina egingo dugu. Besterik ezean, zuei informazioa helarazteko.



Dantzariak. Dotore. I. ETXEBESTE



Txaranga. Kabi-Alai elkarteak kideak, kalez kale. I. ETXEBESTE



Txosnagunea. Bertan ere eman zieten hasiera Inauteriei. L. MONTES



Bakarkako mozorroa, erregina eta musikariak

ARGAZKI ZAHARRAK ▶ Ehunka dira, baina hiru aukeratu ditugu. Festaren osagaietako batzuk: bakarkako mozorroa, danborradako erregina eta txarangako musikariak. Miguel Gabarain zalea da bakarrak ateratzen. Ezkerreko argazkian, pintore gisa atera zenekoa, 1959an. Duela urte gutxi arte erregea

eta damak ateratzen ziren danborradan. Erdiko argazkian Celia Carrera, 1944ko erregina. Eskuinekoan berriz, Kabila txarangako Jesus Mari Zalakain *Pipas* bonbardinojolea eta Antxon Gilmas zuzendaria. Zenbat eta zenbat horrelako! Aurten ere zerrenda handitu egingo da, zalantzarik gabe. HITZA/KABILA 1940-90 LIBURUA

MAITE TOLOSA ▶ INAUTERIZALEA

«Lotsa ematen dit mozorrotu gabe etxetik ateratzeak»

Leire Montes. Gurasoen lekuko hartu dute berak eta bere anai-arrebek. Gurasoei esker maite dituzte Inauteriak biziki; «Inauteri genen sortzaileak» haiek direla dio Maite Tolosa inauterizaleak. Festetan jendeak bat egiteak asko pozten du. **Zein da Inauterietaz duzun lehen oroitzapena?**

Txiki-txikitik bizi izan ditugu Inauteriak etxean. Gurasoek beti mozorrotuta ateratzen gintuzten kalera; haiengandik ikasi dugu festa hauek maitatzen. Lau anai-arreba gara, eta laurak Inauterizaleak; nire anaia Edorta, zer esanik ez!

Gogoan al duzu zure lehendabiziko mozorroa?

Hainbeste izan dira... Bat dut bereziki gogoan: behin Tolosako babarrunak atera ginen, zazpi metroko Ibarrako piperra eta guzti! Primeran pasatu genuen; ez dut sekula ahaztuko.

Noiz hasten zara mozorroak prestatzen?

Gehienetan geure kabuz ateratzen gara, ez konpartsa edo ka-

rriza moduan; karroza batean ateratzeak dedikazio handiagoa eskatzen dizu, eta ikusi dut hori ezinezkoa dela niretzat. Eguberriak pasatu eta ideiei bueltaka hasten gara anaia eta biok. Baina beti azken unerako uzten dugu guztia. Gero presaka ez ibiltzeko prestaketekin lehenago has-tea da urteroko promesa, baina oraindik ez dugu sekula bete. Zer nahi duzu esatea... Bat-batekotasuna; horixe dira Tolosako Inauteriak, ezta?

Nola bizi dituzu?

Lotsa ematen dit mozorrotu gabe etxetik ateratzeak. Txorakeria irudituko zaizue, baina biluzik aterako banintz bezala da. Bizitzan dudak gauza sakratu bakarra dira Inauteriak. Inoiz ez dut hutsik egin. Eta, egunen batean festetan Tolosatik kanpo egon behar badut, badakit sekulako tristura eta herrimina sentituko dudala.

Zer da Inauterietatik gehien gustatzen zaizuna?

Jendearen bat-egitea. Azkene-



Ezkerretik hasita, bigarren Tolosako babarruna da Maite Tolosa. HITZA

TRAGO BATEAN ▶

Festa bat? Tolosako Inauteriak. Dena dira niretzat.

Egun bat? Ezingo nuke bat aukeratu; izan ere, bakoitzak bere berezitasuna daukala iruditzen zait.

Une bat? Diana. Oilo ipurdia jartzen dit, eta malkoari ezin eutsi egoten naiz beti.

Zer da zuretzat asteazkena? Etxera iristen naizenerako dutxatu, aldatu eta lanera joateko denbora justu-justu izaten dut. Hori bai, festak amaitzeko beharra ere sentitzen dut: bi egun gehiago, eta akabo.

ko urteotan hori galtzen ari dela iruditzen zaidan arren, benetan garrantzitsua eta poztekoa da herritar guztiok elkartzen garela ikustea, ideologia eta ezberdintasunak oztupo ez direla sentitzea. Festa eroak dira, txantxa guztiak onartzen ditugu, eta barrea eta poza dira nagusi; ederra da.

Hitz bat Inauterietarako.

Bi: originaltasun dibertigarria. **Nola azalduko zenioke zer diren Inauteriak lehen aldiz datorren bati?**

Ezin da hitzez azaldu, barrutik bizi behar dira nolakoak diren jakiteko. Nire etxeko atek zabal-zabalik dituela esango nioke, eta festan murgiltzeko. ◀

DATUA ▶

166 mila euroko aurrekontua dute aurten go jaiek —28 milioi pezeta inguru—, iaz baino 20.000 euro gehiago Karroza eta konpartsentzako diru laguntzak %25 igo ditu Udalak, txarangena %15a eta elkarrekin antolatutako ekitaldiena %10a.

SARRERAK ▶

Inauterietako zezenetarako sarrerak salgai egongo dira Zaldunitatik aurrera 11:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik zezenak hasi arte.

OHARRAK ▶

Motordun konpartsek arautegi bat dutela gogorarazi nahi du Udaltzaingoa. Lehiaketan izena eman gabe daudenek eguneratuta eduki beharko dituzte trafikoko baimen administratiboak eta ibilgailuaren aseguruera eraman beharko dute, poliza indarrean dutela. Festetako ibilbidea zirkulatu nahi badute, festak hasi baino lehenago —gaur da azken eguna— Udaltzaingoa baimen idatzia lortu beharko dute. Baldintza horiek ez badituzte edo ibilgailu horiek gidatzean desfiteari traba egiten badiote, edo jendearen edo ondasunen segurtasuna arriskuan jartzen badute, festetako ibilbide horretatik kanporatu egingo dituzte. Era berean, isuna izan dezakete trafiko eta motordun ibilgailuen gaian egindako arau-hausteagatik, edo, dagokionean, festetako ordenaren aurka joategatik.

KANTAK ▶

Ikusi nuenian, nik zure sudurra, iruditu zitzaidan, moñoña, lukainka muturra. Ai!, ai!, Pello ziri-ziri, Izaskungo menditik, moñoña, zu ziñan erori. Ai!, ai!, ziri-ziri Pello, gizonak ez dik ongi ematen mozortu ezker. Ikusi nuenian, zure belarria, iruditu zitzaidan, moñoña, azaren orria.

HERRIKOIA

OSTATUA

- Eguneko Menua (aste guztian, larunbat eta igandea ezik)
- Karta aste guztian zehar

Urrope plaza • Leaburu
Tel.: 943 67 15 48

TARTALONGI PASAU TA GUTXI BASTAU

PLAZA ZARRA 10 TOLOSA

www.saldias-miguel.com
saldias@saldias-miguel.com

Saldias Miguel
Nº D.G.S.J.1759

ASEGURUETAKO ARTEKARITZA



HAUR JAIALDIAK ▶



Zizurkil. Jose Arregi plazan elkartu ziren. Lehenengo, San Millan Ikastetxeko haurrek erromeria saioa aurkeztu zuten, baserritar eta moderno jantzita. Ondoren, Jesusen Bihotza Ikastolako haurrek elur panpinez bete zuten plaza eta, bukatzeko, Otaño Ikastetxeko ehun pailazok alaitu zuten plaza. IMANOL GARCIA



Ikaztegieta. Herriko umeek ikuskizun berezia antolatu zuten eskolan bertan; lau multzotan banatu ziren umeak, adinaren arabera eta bakoitzak bere antzezpena egin zuen. Gurasoak eta lagunak txantxoak ikusten izan ziren, giro alai eta umoretsuan. NOELIA LATABURU



Irura. Irurako eskolako umeek dantza saioa eskaini zuten herriko plazan. *Hippy* mozorroa aukeratu zuten eta pelukak eskulan klaseetan egin zituzten; dantza aurretik txistorra jan zuten gaztetxoek. NOELIA LATABURU



Villabona. Ikastetxeak Errebote plazan elkartu ziren bere ekitaldiak aurkezteko. Trogloditak, sorgin dantzak, dantzariak eta ipotxak izan ziren bertan ikusi ziren txantxoak. Ondoren, kalejira egin zuten Incansables txarangaren eskutik. IMANOL GARCIA

Eskoletako festak, haurren gozagarri

Tolosaldeko hainbat eskolako haurrek atzo ospatu zuten Inauterien etorrera; gainontzekoetan gaur da eguna

IMANOL GARCIA
NOELIA LATABURU

Inauteri giroa ez da Tolosan soilik nabaritzen eta Tolosaldeko gainontzeko herrietara ere barreiatu da dagoeneko. Anoeta, Villabona, Zizurkil, Irura, Ikaztegieta eta Abaltzisketako gaztetxoek txantxoak jantzi eta bere ospakizun berezia egin zuten atzokoan. Eguraldia lagun izan zuten ikasle eta ira-

kasleek eta inauteri doinuak dantzatu zituzten, txistorra dastatu zuten eta egun atsegin igaro zuten inauteriak aitzakia izanik. Haurtxoen guraso eta gertukoak ere bere seme-alabak ikustera hurbildu ziren, tokian tokiko herriko plaza eta eskoletara.

Festa ez da bukatzen baina, eta eskualdeko beste zenbait eskolako umeak gaur mozorrotu egingo dira. Bidegoianen,

Inauteri desfilea egingo dute Albizturgo umeekin batera; Alkizan dantza eta ume jolasak izango dira herriko plazan; Adunan, berriz, haur jaialdia antolatuko dute Elordi plazan dagoen lokalean; Amezketak haurrek ere Inauterietako desfilea egingo dute eta Asteasun, azkenik, Pello Errota eskolako haurrek frontoira iritsiko dira eta, ondoren, jaialdia egingo dute bertan.



Anoeta. Asteazken arratsaldean Anoeta eta Irurako ikastolek bat egin zuten eta ekitaldia antolatu zuten, Anoetako ikastolan. *Albistegia* antzerkia egin zuten eta hainbat esketz eskaini zuten, Shangaiko euskal etxea eta basetxea Afrikan, besteak beste. HITZA

TOLOSA ▶ SAN BLAS



San Blas ermitan barreneko elizatarrek ez ezik, elizartetan zeudenek ere bedeinkapena jaso zuten atzokoan. INIGO TERRADILLOS

San Blas: opil gozoak janez, eztarria leun

Bertako produktuak ermitan bedeinkatu dira festak

INIGO TERRADILLOS
JAIONE ASTIBIA

Atzo San Blas eguna izaki, anis-belar eta arraultza zurin-goz egindako bertako erroskilak hartu eta horiek bedeinkatzeko egun propioa zen, urte guztian zintzurkeko minik nabaritu ere ez egiteko. Eta horixe egin zuten, San Blas auzora joan zirenek.

Bertan dagoen eliztxoa aski ez eta, elizateraino izan zen jendea eguneko meza nagusia entzuten. Eta gehinetsuenek

eskuetan bazuten poltsaxoren bat edo erretiluren bat gozokiz hornituta, bedeinkatzera eramana, sinestunentzat egun honetakoak ahalmen berezia omen du eta: eztarria urte guztian ongi izatea bermatzen omen da, gozoki hauen moka-du goxoak janez gero. Horrela bada, ez bada, hara hurbildu zen guztiak jan zuen hozkada, badaezpada, eta baita etxekoentzat eta lagunentzat banatzeko jaso ere.

Hantxe bertan, ermitaren atarian, eros zitezkeen San



Gozoki bedeinkatuak poltsetan, atarian jolasean. JAIONE ASTIBIA

Blas erroskilak, hain zuzen ere jai hauen berezitasun direnak. Baina hau ez zen salmenta postu bakarra, izan ere larratsaren beste aldean, edariak eta txorixotartekotxoak ere aukeran zeuden nahi izan zuen guztiarentzat. Aurtengain, San Blas egunak Inauterietako Ostegun Gizen egunarekin bat egin du.

Jendea, larria gehiena, gutura, mokadutxo egin bitarte-

an, hitzaspertuan aritu zen, toka lehiaketa hasi bitartean. Auzoan bertakoez eta elkarte-koez hartu zuten parte horretan.

Horrela bada, aurtengoz atzokoarekin bukatu ziren bi asteburutan banatuta burutu diren sanblasak.

Festa hauek Emendek Arraun Kirol elkarteak antolatu zituzten, Tolosako Udalaren laguntzarekin.

TOLOSA ▶

Garziandiaren oroimenezkoan bihar partiduak

Aurrera doa, Garziandiaren oroimenez, Peña Union elkarteak antolatutako aurtengo pilota sariketa ere. Horrela, bada, bihar goizean, 10:15ean hasita, jokatu da saiklapenerako baliagarriko bosgarren jarduna, honako bikote hauen artean: Zabala-Jauregi (Añorga) / Aranzabe-Galarraga (Aurrera); Urdaniz-Ruiz (Oberena) / Izagirre-Olaetxea (San Esteban); Elizondo-Irurita (Oberena) / Renobales-Mujika (Aurrera).

VILLABONA ▶

Amnistiaren alde mus txapelketa arrakastatsua

Joan den larunbatetan burutu zen Villabonako Zentroan, Amnistiaren Aldeko Mugimenduak antolatutako mus txapelketa «arrakastatsutzat» jo zuten oso, bertan 35 bikotek parte hartu baitzuten. Hau ikusita, udaberri aldera berriz ere beste antzeko txapelketa bat antolatzeko ideia dutela helerazi diote HIRTZARI, Bertalde bertan parte hartu duten guztiei beren «eskerrik zintzoena» helerazi nahi izan diete antolatzaileek. Kasu honetan irabazleak Txomin Etxeberria eta Mikel Dabila suertatu omen ziren eta sariarekin, arkumea eta euskal produktuen saskia, «oso gustura joan», ziotenez.

ASTEASU ▶

Dispertsioaren gastuetarako santa eskean

Gaur Santa Ageda bezpera eguna izaki, goizez Pello Errotakoek eginen dutena ez ezik, arratsalde ere aterako da beste talde bat santa eskean, herrian barrena eta kasu honetan, biltzen duten dirua euskal presoen dispertsioak eragindako gastuei aurre egiteko baliatuko dute gero. Bi txandatan aterako dira eskera kopla kantari: lehendabiziko txanda, 15:00etan aterako da herriko plaza bertatik; bigarrena, berri, 18:45ean. Herri guztia igaro eta nahikoa kantatu ondoren, afaria eginen omen dute gero elkarrean, bertatik jakitera eman dutenez.

ALTZOKO UDALA

IRAGARKIA

Alzoko Arau Subsidiarioen 3. Aliketa: 972 eta 75 artikuluen arabera, landeteak eta abeltzaintzako ustaketa trinkoak eta lurraldearen ustaketerekin loturaren gabeko nekazaritza industriari instalatzeko araudia aldatzeko.

Lehenengoa: Alzoko Planean dagoen Arau Subsidiarioen 3. Elementu Aliketa: landeteak eta abeltzaintzako ustaketa trinkoak eta lurraldearen ustaketerekin loturaren gabeko nekazaritza industriari instalatzeko araudia aldatzeko dokumentua hasiera batean onartzea.

Bigarrena: Alzoko Planean dagoen Arau Subsidiarioen 3. Elementu Aliketa: landeteak eta abeltzaintzako ustaketa trinkoak eta lurraldearen ustaketerekin loturaren gabeko nekazaritza industriari instalatzeko araudia aldatzeko dokumentua hasiera batean onartzea.

Hirugarrena: Hirigintza Planean dagoen Araudien 164. artikularekin bat etorritik onartutako dokumentuak ("Hirigintza Agiria", "Ingurumenaren Gaietako Erregimenaren Kerketa" eta "Ingurumenaren Gaietako Erregimenaren Auzo Auzoaren Txostenak") jendurako erabakietan jarria hildakotzeko erabakia, ingurumena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, zabalpen handiko egunak barnean eta Udali inguruko aholkulariaren, edozein bidezko kutsuaren duen erregimenaren bidez, bertan dagoen erabakietan onartzea.

a) Dokumentuak aztertzeke lekua eta ordutegia: Alzoko Udali Itzazkaritza, bulego orduetan.

b) Aztertzeke eta kasuak bultzatze erregimenaren aurkezke epea: Inguruko hiru Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den txostenaren arabera.

c) Erreklamazioak aurkezkeke bulegoa: Udali Erregistro Nagusia, bulego orduetan.

d) Erreklamazioak zuzendu behar zaien organoa: Alzoko Udali Osoko Bilkura.

Laguntza ematen, hasierako enpresen ematean, 1978ko Urtearen Legioaren 27. art. eta Hirigintza Planean dagoen Araudien 123. art. kontutan izanik, indarrean dagoen burreko Aruarekin bat datozen lizentziak eman ahal izango dira, beti ere onartze prozesuan dagoen Arau aldatzearekin ere bat datozean. Baldintza hau betetzen ez duten kasuetarako, aldatzeko kutsuaren eremuan, lursailak erregistratzeke, erabilizke eta bultzatze lizentziak emakida suspentzuta egongo da.

Alzoko, 2005eko urtarrilaren 28an. Aliketarako: Maria Pilar Zubizarriren Lasa

KARMELE

ileapaindegia eta gaiak

ONDO PASA INAUTERIETAN!

San Frantzisko, 25 • TOLOSA • Tel.: 943 65 26 02

TOLOSA ▶ GIZARTEA

Gerontologikoan bizi zirenen leku aldaketak hasi dira

Atzo eta gaur egingo dira bertan bizi zirenen lehendabiziko leku aldaketak; Gerontologikoaren itxieraren aurkako plataforma osatu berri da

IÑIGO TERRADILLOS

Atzo arratsaldean joan zen Tolosako Gerontologikotik lehendabiziko adineko pertsona Donostiara. Gaur goizean eta arratsaldean egingo dute gauza bera egoitzan zeuden beste hiru adinekoek.

Tolosako Gerontologikoa ixteko erabakia hartu ondoren Foru Aldundiak banan banan deitu ziela bertan bizitzen ari direnei, edo hauen erantzukizuna dutenei azaldu dute langileek. Dei hauen arrazoiak, itxieraren ondorioz, bertakoek leku aldaketa jasan beharko dutela-eta, Tolosatik zein lekutara joatea erabaki duten galdetzea izan da. Gehiengo handiaren erantzuna Tolosan bizitzen jarraitzea izan da azken urteetan egin duten bezala. Hain zuzen ere, atzo eta gaur joandakoekin 50 geratuko dira denera eta horietatik 30ek gutxi gorabehera Tolosan bertan geratu nahi dute.

Ez da, ordea, posible izango



Jende ugari bildu zen pasa den larunbateko manifestazioan. N.LATABURU

guztien nahia betetzea; bertako langileek azaldutakoaren arabera soilik 10 adinekoek edukiko lukete lekua lurramendi egoitzan, eta Tolosako gainerako egoitzetan lekurik ez dago.

Atzo eta gaur egoitza utziko dutenen kasuan Donostiara eskatu zuten aldaketa; hauen familiakoek zeresan handia izan dutela kokaleku berria aukeratzera azaldu diete HITZARI Gerontologikoko langi-

leek, euren bizilekueetatik hurbil izango baitira horrela.

Bestalde, langileen egoera zalantzaok dela eta ondorengo egunetan ez dakitela zer gertatuko den beraiekin adierazi dute bertan lanean ari direnek..

Plataforma osaturik

Pasa den asteartean Kultur Etxean egindako bilkuran osaturik geratu zen Gerontologikoa zabalik mantentzearen aldeko plataforma.

Plataforma honek antolatuta nahi dituen ekimenak erantzukizun politikoa duten Tolosako eta Gipuzkoako arduradun politikoen erabakia aldaraztea zuzenduko dira. «behingoz jakin dezaten beren interes politiko eta ekonomikoaren gainetik herritarren borondatea eta interesak gailentzen direla». Plataformak herritarren parte-hartzea eskatu du. Datorren ostegunean, 19:00etan bilera izango dute Kultur Etxean.



Astehenerako pilotak aukeraturik

TOLOSA ▶ Atzo aukeratu zituzten pilotak Xala-Lasa III.ak eta Titin III.a-Barriola bikoteek Beotibar pilotalekuan datorren astelehenean jokatu duten partidarako. Titin III.a eta Barriolak osatzen duen bikoteak larru arruntekoak eta arerioenak baino arinagoak

diren pilotak aukeratu zituzten: 103,5; 102,8; 104,7 gramokoak. Xala eta Lasa III.ak, berriz, pilota pisutsuagoak aukeratu zituzten: 106,7; 105,4; 106,5 gramokoak. Jendea ere gerturatu zen pilotalekura, pilotariak aukeraketan lanean ikustera. NOELIA LATABURU

IBARRA ▶

Emakume bat harrapatu zuen atzo auto batek

Autoak lurrera bota eta emakumea korderik gabe eraman zuten

I.TERRADILLOS

Atzo 10:00etan Ibarra Euskal Herria kalean Benito Izagirre kultur etxearen parean 60 urteko J.A.O. emakumea harrapatu zuen auto batek. Hain zuzen ere Peugeot 309 markako auto batek harrapatu ondoren emakumea lurrera erori eta kordea galdu zuen.

Emakumea anbulantziak jaso ondoren Asuncion erietxera eraman beharra izan zuten istripuak eragindako zauriak hartatzera.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 65 23 39

Asteasu. Medikua: 69 24 23

Berastegi-Elduain. Medikua: 68 33 61

Bidegoian. Medikua: 68 11 34

Ibarraldea. Osasun etx.: 672411

Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29

Irura. Osasun zentroa: 69 07 20

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Lizartza. Medikua: 68 20 77

Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larriald.: 461111

▶ Gernikako arbola: 00 69 00

▶ Amaroako dispen.: 67 26 37

▶ Asunzion klinika 67 57 99 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58

▶ DYA: 67 25 36

▶ Gurutze Gorria: 67 48 88

Villabona. Anbulat.: 00 69 70

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89

▶ Donostiako autobusa: 36 17 40

▶ Taxia: 67 04 20

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

KOMUNIKABIDEAK

▶ Galtzaundi: 65 50 04

▶ Aiurri aldizkaria: 30 07 32

▶ Ttipi ttpa ald.: 948 631888

EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06

▶ Arramele-AEK: 67 12 14

▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur. Bronte: Korreo kalea 20

(Tolosa). 943 676 013

Gimeno, A. Elbarren 52 (Leitza).

112

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.

tolosaldean_publici@tolosaldeko

hitza.info

Tolosa. 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko-hitza.info

Villabona-Aizt. 687 41 00 22.

villabona-aiztondo@tolosaldeko

hitza.info

Anoetaledea. 687 41 00 22

anoetaledea@tolosaldeko-hitza.info

Ibarraldea. 687 41 00 32.

ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.

alegialdea@tolosaldeko-hitza.info

Leitzalde. 687 41 01 18.

leitzalde@tolosaldeko-hitza.info

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Ordenagailua. Lau Imac 9.2

eta 3 PC GenuineIntel (128 HB)

salgai, oso merke. 943 467 181

telefono zenbakira deitu.

Etxea. Alegiko Larraitz auzoan

etxea salgai. 680 57 09 52.

Harpidedunei banatua ▶ 2005eko otsailaren 4a, ostirala ▶ III. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN
DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Kuartzesketa, Adura, Abotzu, Alegia, Alkiza, Altoa, Amerieta, Anoeta, Balaran, Bebasanta, Berastegi, Eduain, Herrialde, Ibarra, Itxarotegi, Itzi, Larramendi, Leizola, Leizola, Oñena, Tolosa, Villabona, Zuzuki
bestenik: Leizaldeko Euzkara Batzordea

Gipuzkoako Foru Aldundia

Eusko Jauriaritza Kultura Saila

943

ARRETA ZENBAKIA (zalantzak, harpide egiteko...)

GAURKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

8

hotzena

5

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



ELURRA ARALARREN



Guardetxe: bai

Albi: bai

Pagomari: bai

Igaratza: bai

943

ARRETA ZENBAKIA

(zalantzak, harpide egiteko...)

30 43 46

AGENDA ▶

INAUTERIAK

Aduna. Elordi plazako lokalean, haur jaialdia 14:30ean.
Alkiza. Dantza eta ume jolasak, plazan 14:30ean.
Amesketa. Abaltzisketako eta Zumadi eskolako haurren desfilea plazan 15:30ean.
Asteasu. Frontoira iritsiko da 15:30ean Pello Errota eskolako desfilea; ondoren jaialdia.
Bidegoian. Albizturkoekin desfilea 14:30ean.
Tolosa. Zezen-plazan xexen-festa 16:30ean, Kabi-Alai txarangak alaituta. Ondoren, kalejira. 22:45ean, Leidor zineman Arpegi Taldearen jaialdia.
Tolosa. Txosnagunean, Graffiti lehiaketa 18:30ean (Izena emateko: 607 855 064; Garikoitz); 20:00etan sagardo dastaketa; 21:00etan afari herrikoia; 23:00etan kontzertuak: Senaz, Izeba Pilarren ilobak eta Kudai; ondoren Objektuak bilatu lehiaketa...

SANTA AGEDA KOROKAK

Aduna. 17:00etan plazatik.
Anoeta. Ikastolan entsegua 14:45ean, ondoren baserriz baserri.
Alkiza. Plazatik 17:00etan.
Alegia. Txintxarri abesbatza 19:00etan.
Asteasu. Goizez Pello Errota eskolatik aterata, baserriz baserri. 12:00etan Pello Errota eskolan saioa.
Ibarra. Anbulatoriotik 18:00etan, Izaskun alderantz. Arratsaldez, abesbatzarekin herrian.
Leitza. Goizez eskea etbez etxe umeek. Arratsaldez, baserrietan eskea, umeek. 19:00etan koplak kantari kalejira, herrian barrena, trikitilariekin. Ondoren, arratsaldekoa Karrapean.
Tolosa. Olarraingo Zentrotik 16:00etan; Gure Txokoa elkartetik 18:00etan; Orfeoiko taldekoa lokaletik 18:00etan; Amarozen 18:00etan; Lizardi elkartetik 19:30ean; Ero-Etxe elkartetik 19:30ean; Emendek-etik 19:30ean.
Villabona. Jesusen Bihotza ikastolakoak Zentrotik 15:00etan; Eresergi abesbatzarekin batera, Kultura Etxetik kalejira 18:30ean.

GORA ETA BEHERA ▶ N. LATABURU - I. GARCIA



Aspaldiko txupinazo jendetsuena

Hainbeste lagun ez zen aspaldi ikusi Ostegun Gizeneko txupinazoan. Hain zegoen beteta Plaza Zaharra, ezen Nafarroako Zubia ere jendez gainezka zegoela. Edade guztietako jendea bildu zen Inauteriei hasiera ematen dien suziria ikusi eta entzuteran. Haur eta gaztetxoak txilabarekin jantzita hasi zituzten festak. Hori bai, txupinazoak ere izan zuten bere kontrapuntua: hamabiak baino bost minutu lehenago bota zen suziria. Itxurazko korporazioak itxurazko erlojua eramango ote zuten soinean?. HITZA



Non ote dira komun berriak?

Tolosako Udalak Inauterietarako inauguratu berri ditu autogarbigarriak diren komunak. Argudiatu daiteke zezen-plazan daudela eta Parte Zaharrean larrialdiarekin izanez gero ez dela xamurra bertaraino joatea. Halere, horrek ez du justifikatzen etxeen hormak komun publiko bailiran erabiltzea, argazkiko gazteek egin zuten bezala. Tabernetan, edariez gain, komunak ere badaude. Ostegun Gizenean dagoeneko kaleak erabiltzen hasiz gero, ikustekoa izango da herria nola geratuko den festaren egun guztiak pasatu ondoren. HITZA

ZORION AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Marilu
Zorionak.
Zure lagunak.



URTE ASKOAN
Amona Maria zorionak!!
Gaur 90 urte. Muxu bat.
Eukene eta Ander.

HITZA, zorion agurren

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...
zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzara:
Araba etorbidea, 5 behega - TOLOSA
Udaletxeko bulegoa - LEITZA

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!